

**OÑATIKO UDALA ETA OÑATIKO
PARROKIKO KORUAREN ARTEKO HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, HORACIO ARGARATE SARASKETA jauna Oñatiko Parrokia, Parrokiko Koruaren izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN: **3744**E / Helbide soziala: Unibertsitate Etorbidea, 3).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE :

I.- Eskumenak. Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute Oñatiko Parrokia, Parrokiko Korua (R2000295B) zuzenbide pribatuko elkarte delako, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute Elkarreak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan harremanik ere.

III. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua dio (22.2.a atala) toki erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako diru laguntza nominatiboak zuzenean eman ahalko direla, hitzarmenetan eta diru laguntza horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

IV. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikulua dio hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako diru laguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Hau guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau

HITZARTZEN DUTE:

LEHENA: Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da:

- Oñatiko Parrokiko Koruaren ekitaldiak aurrera eramateko gastuen finantzazioan laguntzea.

BIGARRENA: Laguntza ekonomikoa eta finantzaketa araubidea.

Oñatiko Udalak Oñatiko Parrokiko Koruari dirulaguntza zuzen eta izenduna emango dio, hitzarmen honen xede diren jarduerak finantzatzeko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa urteko hiru mila eta hiru euro (3003 €) izango da, eta lau (4) urteko iraupena izango du, hitzarmen honen indarraldiarekin bat etorritz.

Horrenbestez, izaera plurianualeko gastua ezartzen da, gehienez 9.009€ko kreditu konprometitua onartzen delarik.

Urtez urteko banaketa honako hau izango da:

.-2026ko ekitaldiko ordainketa kreditua: 3.003€

Hitzarmen honen xede den dirulaguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2026 urteko Udal aurrekontuetan. Dirulaguntza 1.0800.481.334.00.05.5186. 2026 partidaren kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko da.

.-2027ko ekitaldia: 3.003€

.-2028ko ekitaldia: 3.003€

.-2029ko ekitaldia: 3.003€

.-Guztira kreditu konprometitua: 9.009€

Hitzarmen honen etorkizuneko ekitaldietako dirulaguntzak baldintzatuta geratzen dira urte horietako aurrekontuetan nahiko kreditu zuzkitzera.

HIRUGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmenak urte bateko indarraldia izango du: 2026. urtea.

LAUGARRENA: Dirulaguntza emateko prozesua.

Dirulaguntza zati bakarrean egingo da, akordioa onartzen den unean.

BOSGARRENA: Gastuen likidazioa.

Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko da:

- a) Egindakoaren memoria laburra.
- b) Izandako gastu-sarreraren laburpen-taula.

Horretarako, Oñatiko web orritik jaitziko gastu-sarreraren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da. (www.oñati.eus).

- c) Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria aurkeztuz.
- d) Epe muga: 2026ko abenduak 31, osteguna, baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak.

Hitzarmen honetan aurreikusitako diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe lotura duten gastuak aurkeztu beharko dira eta diruz lagundutako jarduerak egikartzeko aurreikusitako epearen amaieran baino lehen sortzen direnak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

SEIGARRENA: Koruaren betebeharrak Udalarekiko.

1. Parrokiko meza eta hileta ekitaldiak antolatzea.
2. Kurtso bukaerako ekitaldian egiten duten irteeran beste koru batekin trukaketa bat egitea edo joaten diren tokiko eliza edo ermitaren batean saio bat eskaintzea. Bertan, Oñatiko herriaren izena adierazi beharko dute.
3. Elkarteak diru kontuen ikuskaritza edo auditoria egitera behartuta balego edo eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko baliokete, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 c) eta f) artikulua arabera).
4. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, Koruak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan: Koruaren lan-hizkuntza euskara izango da, ahozko eta idatzizko harremanetan, bai Udalarekin eta baita gainontzeko herriko eragileekin ere. Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

ZAZPIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, legez (Apirilaren 18ko, 781/1986 Errege Dekretu legegilearen 114. artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

ZORTZIGARRENA: Datuen egiaztapena eta aurka egiteko eskubidea

Oñatiko Udalak, NISAE-Euskadiko administrazioen Interoperabilitate eta Segurtasun Nodoaren bidez, dirulaguntzaren izapidetze administratiborako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, horretarako beste administrazio publiko batzuetatik dagokion informazioa eskuratuz. Zehazki, honako zerbitzu hauek kontsultatuko dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketak egunean izateari buruzko kontsulta.

Oñatiko Parrokiko koruak kontsulta horiek egiteko aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango du, horretarako bere borondatea berariaz adieraziz. Kasu horretan, dirulaguntza emateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, ezarritako epeetan eta baldintzetan. Eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak prozeduraren izapidetzearekin jarraitzeko ezintasuna ekar dezake.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Koruak hitzarmenean jasotako baldintzak beteko ez balitu Udalak hitzarmena bertan behar utz lezake, dirulaguntza itzuli beharko lukelarik Elkartek/Taldeak.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Hitzarmenaren klausulak banan-bana irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, adierazitako lekuan eta egunean sinatzen dute hitzarmen hau

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan,

Oñatiko Udalaren izenean,
Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

Oñatiko Parrokiko Koruaren izenean,
Horacio Argarate Sarasketa



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Parrokiako Korua, hitzarmena

CSV/EKS:

SINA37b9b2db-af6c-48fd-89d9-e9f922ec229a